



Arkuzko soldadura

Dokumentu honetan, arkuzko soldadura lanak egoki eta seguru egiteko bete behar diren arauak eta jarraibideak bildu dira. Era honetako lanek erredurak eragin ditzakete, bai soldaduraren txinpartengatik bai arku elektrikoaren erradiazioengatik, eta azken horiek txinpartak baino larriagoak izan daitezke.

Hautapen eskakizunak

Dokumentazioak eduki beharrekoak:

CE marka.

CE adostasun aitortpena.

Fabrikatzailearen edo hornitzailearen erabilera eta mantenimendu jarraibideen eskuliburua, merkaturatzen den herrialdeko hizkuntzan. Tresna erabiltzean, kontuan hartu behar dira fabrikatzaileak emandako jarraibideak eta argibideak.

1215/1997 EDren zehaztapenetara egokitzearen egiaztapena (lan ekipoak).

Aldez aurreko egiaztapenak. Makinaren egoera

Arkuzko soldadurak kontserbazio egoera egokienean egon behar du.

Konexio elektrikoek egoera onean egon behar, kalte edo akatsik gabe.

Egiaztatu elikatze tentsioa tresnaren ezaugarrien plakan agertzen den berbera dela.

Makinaren konexio larakoak erabiliko den korrante hargunerako balio behar du. Ezin da larakoa inolaz ere modifikatu. Ez erabili egokigailurik lur hargunea duten gailuetan. Dagozkien korrante harguneetara konektatutako larako egokiak erabiltzeak txikitu egiten du deskarga elektriko arriskua.

Makina konektatzen den instalazio elektrikoak etengailu magnetotermikoa eta disjuntore diferentziala eduki behar ditu, egoera egokienean.

Kontuz gailua ustekabeen abiaraztearekin. Ziurtatu gelditze posizioan dagoela korrante hargunera konektatu aurretik.

Langileak bete beharreko baldintzak



18 urtetik gorakoa izatea.

Osasun zaintzari dagokionez, lanpostuan aritzeko gaitasun agiria edukitzea.

Prestakuntza espezifiko egiaztatua.

Tresna erabiltzeko baimena.

Erabilera

Erabilera jarraibideak

Tresna erabiltzean, kontuan hartu behar dira BETI fabrikatzailearen erabilera eta segurtasun jarraibideak. **Eranskina ingelesez edo italieraz.**

Lan eremua

Eduki lanpostua garbi eta ondo argiztatua.

Lan egin oinarri sendo baten gainean, eta mantendu oreka beti. Horrela, hobeto kontrolatuko duzu erreminta elektrikoa ustekabe bat gertatuz gero.

Ez erabili erreminta elektrikoa leherketa arriskua dagoen tokian, erregai likidoa, gasa edo material hautsa dagoen lekuan. Erreminta elektrikoaren txinpartek material hautsa edo lurrinak sutu ditzakete.

Ez lan egin egoera klimatologiko desegokian (euria, elurra, etab.). Kasu horretan, estali makina material iragazgaitzez.

Prebentzio alderdi espezifikoak

Babestu makina erradiala eurretik eta hezetasunetik.

Egin mantentze lan egokia, eta egiaztatu etengailua ondo dabilela.

Ez atera entxufea kabletik tira eginez.

Deskonektatu entxufea lana amaitzean.

Lan egitean, ipini ondo oinak, oreka ez galtzeko.

Ez erabili erreminta atmosfera leherkorretan.

Ez erabili arropa nasairik.

Norbera babesteko ekipamendua



Langileak erabili behar ditu:

Aurpegi eta begi babesgarria, erradioetatik eta askatutako partikuletatik babesteko.

Josturak barrualdean dituen mahuka luzeko larruzko eskularruak.

Larruzko mantala.

Azpantarrak.

Segurtasun oinetakoak, bota motakoak (isolatzaileak ahal izanez gero).

Burukoa eta/edo segurtasun gerrikoa, lanak hala eskatzen duenean.

Artile hutsez edo suaren kontrako kotoiz eginiko lan arropa, beso luze, eskumutur estu eta lepoa babesteko lepokoarekin.

IKUS: NTP 494: Arkuzko soldadura elektrikoa: segurtasun arauak. Erantsia.

Prebentzio mantenimendurako gida

Bete itzazu fabrikatzailearen erabilera eskuliburuan jasota dauden mantenimendu eta konponketa jarraibideak eta/edo abisuak.

ARRISKU OROKORRAK

1. Kontaktu elektrikoak (zuzenekoak edo zerkakakoak).
2. Askatutako partikulak aurpegira edo begietara proiektatzea.
3. Erredurak.
4. Leherketak eta suteak.
5. Erradiozio ultramore eta argi erradiozioekiko esposizioa.
6. Ke eta gas toxikoen inhalazioa.
7. Soldadura lana egiten den eremuak berez dituen arriskuak.

PREBENTZIO NEURRIAK

LAN EREMUA PRESTATZEAN

8. Prestatu oinarri sendo eta egonkor bat, lana egoki egiteko.
9. Ikus lan eremuan material erregairik badagoen (hautsa, likido sukoiak, etab.). Garbitu, halakorik egonez gero.
10. Inguruan mugitu ezin den material erregairik egonez gero, estali suaren kontrako materiala erabilia.
11. Ipini dagokion errotulua lan egin behar den lekuan: "Kontuz: soldadura eremua".
12. Instalatu aspirazio bidezko estrakzio sistema lokalizatu bat. Estrakzio irekidurak soldadura puntutik ahalik eta hurbilen egon behar du, aire kutsatua arriskurik gabeko eremuetara ebakutzeko.
13. Ziurtatu garbi eta lehor daudela instalazioaren korrante hargunea eta ekipoaren kablearen konexio larakoa.



14. Egiatzatu kableen diametroa egokia dela erabiliko den korronterako.
15. Babestu kableak olioetatik, koipeetatik, partikula gorietatik...
16. Eskura eduki su itzalgailu egoki bat, lan eremutik hurbil.
17. Soldatzean, beharrezkoa izanez gero, erabili manparak lankideak babesteko. Manpararen materialak opakoa izan behar du, edo zeharrargi mardula, eta behealdeak gutxienez lurretik 50 cm-ra egon behar du, lan eremua aireztatzeko.

SOLDADURA TRESNERIA ETA HAREN ERABILERA

18. Lanean hasi aurretik, egiatzatu kableen isolamendua, soldadura kableak eta ekipoa elikatzeke kableak zabalduz, kable bakoitza bere aldetik. Kableren batek akatsik izanez gero, aldatu.
19. Ziurtatu soldadura kableek ez dutela soldatzailearen gorputza ukitzen.
20. Kontuan izan fabrikatzailearen jarraibideak konexioa egitean eta soldadura ekipoa erabiltzean.
21. Egiatzatu ekipoa karkasa konektatuta dagoela instalazioaren lur konexio zirkuituarekin.
22. Babestu gorputz atal guztiak soldatzen hasi aurretik.
23. Ez erabili koipe, disolbatzaile edo substantzia sukoiz zikindutako arroparik, ezta arropa busti edo hezerik ere.
24. Lanean hasi aurretik, ikus erradiazioen kontrako kristalezko iragazkia egokia dela elektrodoaren intentsitate edo diametroarako. Soldatzailearen laguntzaileek eta hurbil dauden langileek ere babes pantailak erabili behar dituzte, soldadura motarentzat egokiak izango diren kristal iragazleekin.
25. Elementu metalikoekin lan egitean, erabili segurtasun oinetako isolatzaileak.
26. Zeparen pikatze edo arrabotatze lanetan, babestu begiak segurtasun betaurrekoekin edo pantaila garden batekin.
27. Altueran eginiko lanetan, erortzeko arriskurik izanez gero, erabili zipriztinetatik babestutako segurtasun gerrikoa edo arnesa.
28. Bilatu posizio egokiena soldatzeko, soldadura gasak aurpegi babesgarrira zuzenean ez iristeko.
29. Ez egin soldadura lanik leku itxietan eta sute edo leherketa arriskua duten lekuetan lan baimenik gabe, ezta arriskuen ebaluazioak adierazten dituen leku edo lanpostuetan ere.
30. Leku itxietan eta aireztapenik gabekoetan soldadura lanak egitean, erabili arnasketarako ekipa autonomia, edo kanpoko aire hornidura sistema.
31. Ez egin soldadura lanik euria ari duenean edo material eroalea dagoen lekuetan, babes elektriko egokirik gabe.
32. Zepa pikatzean, erabili mailu egokia, askatutako partikulak soldatzailea dagoen lekurantz ez irteteko; hots, aurkako norabidean irteteko. Kontuz ere inguruan dauden langileekin.
33. Ez egin soldadura lanik inguruan koipea kentzeko lanetan ari direnean.
34. Soldadura makina manipulatu behar izanez gero, deskonektatu lehenbizi, baita makina mugitu behar denean ere.
35. Soldadura lana amaitzean, atera elektrodoak elektrodo-etxetik, eta deskonektatu ekipoa elikatze iturritik.
36. Ez erabili elektrodoak 38-50 mm gelditzen direnean, elektrodo-etxearen isolamendua kaltetu daitekeelako.
37. Ez ipini elektrodo berriak eskularrurik gabe edo eskularru bustiekin, eta ez hoztu elektrodo-etxea uretan sartuz.
38. Gorde lehor elektrodoak eta elektrodo-etxeak. Bustiak edo hezeak egonez gero, lehortu erabili aurretik.
39. Gorde elektrodoak leku seguruan, erregaietatik edo gas konprimatu ihes arriskua duten lekuetatik urrun.
40. Kontuan hartu babes ekipa bakoitzaren fabrikatzaileak emandako jarraibideak, haren erabilera, mantenimendu eta biltegitzeari dagokienez.
41. Aztertu aldi berean behin norbera babesteko ekipamenduak, eta ordeztu, kalterik edo akatsik izanez gero.